



Urretxuko udala



ALKATETZAREN EBAZPENA

Urretxun, bi mila eta hamazazpiko urriaren hiruan.

Mineralogia eta Paleontologia Astea egin behar da laster Urretxun, urriaren 30etik azaroaren 5era bitartean. Inguru honetan egiten diren ekintzetarako zenbait pertsona kontratatu behar dira. Udaletxeko sarreran eta tailerretan eta museoan lan egiteko 2 langile kontratatuko dira astean zehar. Bestalde, azaroaren 3an, 4an eta 5ean haur ekintzetarako 8 begirale behar dira.

Aplikatu beharreko legerian agindutakoari jarraiki, eta Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 21.1 h) artikulua ematen dizkidan ahalmenen arabera, hona hemen

EBAZPENA:

Lehenengo.- Udaletxeko sarreran eta tailerretan eta museoan lan egiteko 2 langile kontratatuko ditu Udalak lan horietarako duen lan-poltsatik zuzenean. Lana urriaren 30etik azaroaren 5era bitartean izango da: azaroaren 3tik 5era bitartean goiz eta arratsaldez beteko da lan-jardunaldia, eta urriaren 30etik azaroaren 2ra bitartean, arratsaldez eta ikastetxeetako txanden arabera bete beharko da lan ordutegia. Malgutasunez bete beharko da ordutegia.

Bigarren.- Haurren tailerretarako 8 begirale kontratatzeko lan eskaintza zabalduko da, web gunean, egunkarietan eta udaletxeko iragarki taulan.

Hirugarren.- Eskaintzaren baldintzak ezartzea aukeraketa prozesua egin ahal izateko.

Betebeharreko baldintzak:

- 1.- Gutxieneko adina: 18 urte
- 2.- Gutxieneko formazio maila: DBHn graduatua.
- 3.- Aisialdiko begirale titulua.
- 4.- Euskara: B2 maila egiaztatzea.
- 5.- Erabat libre egon behar da aurreikusitako egun eta ordutegian

Baloratzekoa:

- 1.- Haur ekintzetan egiaztatutako eskarmentua.
- 2.- Langabezian egotea.
- 3.- Urretxun erroldatuta egotea.

Nola baloratuko da:

1.- Haur ekintzetan egiaztatutako eskarmentua.

Begirale lanetan eguneko 0.10 puntu, eta gehienez 15 punturekin baloratuko da.

Eskarmentua egiaztatu behar da "bizitza laboralaren" bidez edota lan-kontratuak aurkeztuz. Ez da baloratuko egiaztatzen ez den eskarmentua.

Kontuan hartuko da ere umeein egindako lan bolondresa, begirale lanetan, beti ere egiaztatuta. Egiaztagiria jarduna, orduak eta epe zehatzak jaso beharko du.

2.- Langabezian egotea.

10 punturekin baloratuko da langabezian egotea,

Baloratu ahal izateko "Izen ematearen aldiei buruzko txostena" aurkeztu beharko da.

3.- Urretxun erroldatuta egotea.

5 punturekin baloratuko da.

Kontuan hartu ahal izateko errolda 2017ko irailaren 30a baino lehenagokoa behar da izan.

Baldintza hau Udalak berak egiaztatuko du.

Deialdian aurkeztutako izangaiekin barematuko dira baldintzak eta hurrenkeraren arabera lehendabiziko 8 izangaia izango dira aukeratuak. Baldintzak betetzen dituzten gainontzeko izangaiek erreserban geratuko dira sortzen diren beharrak betetzeko.

Berdinketa izanez gero, Urretxun erroldatutakoek izango dute lehentasuna. Berdinketak jarraitzen badu, lan eskarmentuak aginduko du, eta hala ere berdinketak jarraitzen badu, zozketa egingo da.

Lana azaroaren 3an, 4an eta 5ean izango da, goizez eta arratsaldez. Halaber, urriaren 30-31n, arratsaldean, ikastaro bat egingo da. Aukeratutakoek derrigorrez egin beharko dute ikastaroa.

Laugarren.- Izena emateko epea ezarri: 2017ko urriaren 20a, arratsaldeko 14:00ak arte, Urretxuko Udaleko erregistro orokorrean.



Idazkari naizen
honen aurrean